



Ayuntamiento de Ansoáin
Antsoaingo Udala
P3132500D
Tel: 012; 94813 22 22

Udaletxe Plaza, 1
Plaza Consistorial, 1
31013 Nafarroa-Navarra
ansoain@ansoain.es

Antsoaingo herritarrei euskara ikastaroak egiteagatik dirulaguntzak emateko oinarriak 2022-2023.

XEDEA

Antsoaingo Udalak, Antsoainen erroldatuta dauden pertsonak euskara ikastaroak egin ditzaten, dirulaguntzak emanen ditu, honako baldintza hauek betez gero:

BALDINTZAK

1. Familiaren urteko diru-sarrera gordin ponderatuak ez dira izanen egungo lanbide arteko gutxieneko soldata baino 2,8 aldiz handiagoak.

2. Diru-sarreraren ponderazioa honen arabera zehaztuko da:

Familiaren diru-sarrera gordinek zenbat aldiz hartzen duten zergaldiko LGSa, dirulaguntza eskatu aurreko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako.

–Familia unitateko kideen kopurua.

–Familia unitatean zenbat kidek sortzen dituzten diru-sarrerak, gutxienez ere diru-sarrera guztien %20 emanda.

Familiaren diru-sarreraren ponderazioa egiteko, honako formula hau erabiliko da:

$$DSP = FD \times N \times A$$

DSP: Familiaren diru-sarrera ponderatuek zenbat aldiz hartzen duten lanbide arteko gutxieneko soldata.

FD: Familiaren diru-sarrera gordinek zenbat aldiz hartzen duten lanbide arteko gutxieneko soldata.

N: Ponderazio koefizientea, kontuan hartuta familia unitateko zenbat kiderentzat eskatzen den

Bases para la concesión de ayudas económicas a ciudadanos/as de Ansoáin por la realización de cursos de euskera 2022-2023.

OBJETO

El Ayuntamiento de Ansoáin, al objeto de facilitar a aquellas personas empadronadas en Ansoáin la realización de cursos de euskera, concederá ayudas económicas, siempre y cuando se cumplan las siguientes condiciones.

REQUISITOS

1. Que los ingresos familiares brutos ponderados anuales no excedan de 2,8 veces el Salario Mínimo Interprofesional vigente.

2. La ponderación de ingresos se determinará en función de:

–Ingresos familiares brutos, en número de veces al SMI del período impositivo a efectos de Impuesto sobre la Renta de las personas físicas, inmediatamente anterior al momento en que se solicita la subvención.

–Número de miembros de la unidad familiar.

–Número de miembros de la unidad familiar que generen los ingresos aportando al menos el 20% de los mismos.

La ponderación de los ingresos familiares se efectuará de acuerdo a la siguiente fórmula:

$$IFP = IF \times N \times A$$

IFP: Cuantía de los ingresos familiares ponderados, en número de veces el salario mínimo interprofesional.

IF: Cuantía de los ingresos familiares brutos, en número de veces el salario mínimo interprofesional.

N: Coeficiente ponderador en función del número de miembros de la unidad familiar para la que se

<p>dirulaguntza.</p> <p>A: Ponderazio koefizientea, gutxienez ere familiaren diru-sarrera gordinen %20 ekartzen duten kideen kopuruaren arabera.</p> <p>Ponderazio koefizienteak honako hauek izanen dira:</p> <p>N:</p> <ul style="list-style-type: none"> –Kide bateko familia unitateak: 1,00. –2 kideko familia unitateak: 0,94. –3 kideko familia unitateak: 0,89. –4 kideko familia unitateak: 0,82 <p>4 kidetik goiti, ponderazio balioari 0,06 kenduko zaio kide bakoitzeko.</p> <p>Familia unitateko kide bat edo gehiago minusbaliatuak edo 65 urtetik gorakoak badira, berez egokitutako hurrengo tartekoa edo tarteetakoa izanen da aplikatu beharreko N koefizientea.</p> <p>A:</p> <ul style="list-style-type: none"> –Familia unitatean pertsona bakar batek ekartzen baditu diru-sarrerak: 0,77. –Familia unitatean bi pertsonak ekartzen badituzte diru-sarrerak: 0,75. –Unitatean hiru pertsonak edo gehiagok ekartzen badituzte diru-sarrerak: 0,73. <p>Orientazio irizpide gisa, honi erantsitako kalkulu orria erabiliko da.</p> <p>3. Familiaren diru-sarrerak.</p> <p>Familiaren diru-sarrera gordinak dira laguntza eskatzen duen familia unitatetik datozenak.</p> <p>Horiek frogatzeko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken aitortpenaren edo azken aitortpenen fotokopia konpultsatua aurkeztuko da, Foru Ogasunak edo Udalak konpultsatua; bestela, Foru Ogasunaren ziurtagiria, adierazten duena aitortpena ez dutela egin ez zeudelako</p>	<p>solicita subvención.</p> <p>A: Coeficiente ponderador en función del número de miembros que aporte al menos el 20% de los ingresos familiares brutos.</p> <p>Los coeficientes de ponderación serán los siguientes:</p> <p>N:</p> <ul style="list-style-type: none"> –Unidades familiares de 1 miembro: 1:00. –Unidades familiares de 2 miembros: 0,94. –Unidades familiares de 3 miembros: 0,89. –Unidades familiares de 4 miembros: 0,84. <p>Por cada miembro adicional a partir de 4, el valor de ponderación se reducirá en 0,04.</p> <p>Cuando uno o más miembros de la unidad familiar sean personas con minusvalía o mayores de 65 años, el coeficiente N aplicable será el del tramo o tramos siguiente al que le hubiera correspondido.</p> <p>A:</p> <ul style="list-style-type: none"> –Unidad familiar cuyos ingresos se deban a un solo perceptor: 0,77. –Unidad familiar cuyos ingresos se deban a dos perceptores: 0,75. –Unidad cuyos ingresos se deban a tres o más perceptores: 0,73. <p>Como criterio orientativo, se utilizará la Hoja de Cálculo anexa.</p> <p>3. Ingresos familiares.</p> <p>Se consideran ingresos familiares brutos, los que provengan de la unidad familiar para la que se solicite la subvención.</p> <p>Estos se acreditarán mediante aportación de fotocopia compulsada por la Hacienda Foral o el Ayuntamiento, de la última declaración o declaraciones del Impuesto de la Renta de las Personas Físicas, o bien, certificado de la</p>
---	--

egitera behartuta. Bestela, familiak lortutako diru-sarrera gordinen zinpeko adierazpena aurkeztuko du eskatzaileak, agiriaren bidez.

Era berean, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Eskatzaileak besteren kontura ari diren langileak badira, nominak edo enpresaren frogagiriak aurkeztuko dituzte, indarreko lan araudiari lotuak, eskaera egin aurreko hamabi hilabetei dagozkienak. Etxeko langile gisa ari diren pertsonak agiriaren bidez erakutsiko dituzte inguruabar hori eta lan horretan jasotako diru-sarrerak.

b) Eskatzaileak erretiratuak edo pentsiodunak badira, edota lanerako ezintasuna edo baliaezintasuna duten langileak, eskaera egin aurreko hamabi hilabeteetan jasotako pentsioaren edo laguntza ekonomikoaren ziurtagiria aurkeztuko dute.

c) Eskatzaileak nor bere konturako langileak badira, Gizarte Segurantzaren urteko kotizazioaren ziurtagiria aurkeztuko dute, kuotak kalkulatzeko oinarria erakusten duena, eta, gainera, diru-sarreraren aitortpen pertsonala.

d) Eskatzaileak langabezia badaude, Enpleguko Institutu Nazionalak luzatutako ziurtagiriak aurkeztuko dituzte, eskaera egin aurreko hamabi hilabeteetan jasotako laguntzak erakusteko.

Bide horietaz gain, Antsoingo Udalak beste frogabide batzuk ere eskatzen ahal ditu, eskatzaile bakoitzaren familiaren benetako diru-sarrerak egiaztatzeko hori egin behar dela uste duenean.

4. Baremo ekonomiko eta eskaerak.

Dirulaguntza hauek lortzen ahalko dituzte Antsoainen erroldaturiko pertsonak, eskaera aurkeztuz gero, honako baremo ekonomiko honen arabera:

–Familiaren diru-sarrera gordinak. Dirulaguntzaren ehunekoa.

–Diru-sarrera ponderatuak, kontuan izanik hilabeteko errentak zenbat aldiz hartzen duen LGSa.

Hacienda Foral de no haberse efectuado dicha declaración, en el supuesto de que no estuviesen obligados a presentarla. En su defecto, el solicitante presentará una Declaración Jurada de los ingresos familiares brutos obtenidos, justificándolo documentalmente.

Así mismo, deberá presentarse la siguiente documentación:

a) Si los solicitantes son trabajadores por cuenta ajena, aportarán las nóminas o justificantes de empresa, ajustados a los requisitos de la reglamentación laboral vigente, correspondientes a los doce meses inmediatamente anteriores a la solicitud. En el caso de personas que trabajan como empleadas de hogar, deberán acreditar esta circunstancia documentalmente, así como los ingresos percibidos en este concepto.

b) Si los solicitantes son jubilados o pensionistas, incluidos los trabajadores en situación de incapacidad laboral o invalidez, aportarán certificación de la pensión o prestación económica percibida durante los doce meses inmediatamente anteriores a la solicitud.

c) Si los solicitantes son trabajadores por cuenta propia aportarán certificación de la cotización anual a la Seguridad Social en la que conste la base anual sobre la que están calculadas las cuotas y declaración personal de ingresos.

d) Si los solicitantes se encontraran en situación de desempleo aportarán certificaciones expedida por el Instituto Nacional de Empleo, acreditativa de las prestaciones recibidas durante doce meses inmediatamente anteriores a la solicitud.

Con independencia de cuanto antecede, el Ayuntamiento de Ansoáin podrá exigir cuantos medios de prueba estime necesarios para comprobar los ingresos familiares reales de cada solicitante.

4. Baremo económico y Solicitudes.

Podrán acogerse a estas subvenciones, aquellas personas que estén empadronadas en Ansoáin y que así lo soliciten, en función del siguiente

- Diru-sarrerak LGSa baino 2,8 aldiz handiagoak: %0.
- LGS halako 2,6 eta halako 2,8 arteko diru-sarrerak: %10.
- LGS halako 2,4 eta halako 2,6 arteko diru-sarrerak: %20.
- LGS halako 2,2 eta halako 2,4 arteko diru-sarrerak: %30.
- LGS halako 2 eta halako 2,2 arteko diru-sarrerak: %40.
- LGS halako 1,8 eta halako 2 arteko diru-sarrerak: %50.
- LGS halako 1,6 eta halako 1,8 arteko diru-sarrerak: %60.
- LGS halako 1,4 eta halako 1,6 arteko diru-sarrerak: %70.
- LGS halako 1,2 eta halako 1,4 arteko diru-sarrerak: %80.
- LGS halako 1 eta halako 1,2 arteko diru-sarrerak: %90.
- LGStik beherako diru-sarrerak: %100.

Eskaerak urte baterako izanen dira, eta laguntzak emateko baldintza da eskaera egiten den ekitaldi ekonomikoan Antsoaingo Udalaren aurrekontuetan dirua izatea.

Antsoaingo Udalak, beharrezko dela uste duenean, dirulaguntzaren urtebeteko epean onuradunen egoera soziala eta familiaren inguruabarrak berrikusiko ditu, horiek izan baitziren laguntza emateko oinarria, eta berrikuspen horren ondorioz zenbatekoa handitu edo txikitu, egoera eta inguruabarrak aldatu badira.

Dirulaguntza eskaerak honako bide hauetatik edozein erabiliz aurkeztuko dira:

-Modu telematikoa, udalaren egoitza elektronikoaren bidez:
<https://sedeelectronica.ansoain.es>

-Aurrez aurre, Antsoaingo Udalaren bulegoetan (Udaletxeko Plaza 1, Antsoain) astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara

gutxienez ere, agiri hauekin batera:

5. Agiriak:

- Eskabide orria, alkateari zuzendua,

baremo económico:

- Ingresos familiares brutos Porcentaje de subvención.
- Ponderados en número de veces SMI sobre renta mensual.
- Ingresos superiores a 2,8 veces el SMI 0%.
- Ingresos entre 2,6 y 2,8 veces el SMI 10%.
- Ingresos entre 2,4 y 2,6 veces el SMI 20%.
- Ingresos entre 2,2 y 2,4 veces el SMI 30%.
- Ingresos entre 2 y 2,2 veces el SMI 40%.
- Ingresos entre 1,8 y 2 veces el SMI 50%.
- Ingresos entre 1,6 y 1,8 veces el SMI 60%.
- Ingresos entre 1,4 y 1,6 veces el SMI 70%.
- Ingresos entre 1,2 y 1,4 veces el SMI 80%.
- Ingresos entre 1 y 1,2 veces el SMI 90%.
- Ingresos menores al SMI 100%.

La solicitud de las mismas tendrá carácter anual, quedando condicionada su concesión en cada momento, a las disponibilidades presupuestarias del Ayuntamiento de Ansoáin en el ejercicio económico en que se solicite.

Así mismo, el Ayuntamiento de Ansoáin, cuando así lo estime oportuno, procederá durante el año de vigencia de la subvención concedida, a revisar las circunstancias sociales y familiares de los beneficiarios que dieron lugar a la concesión de la misma, y a incrementar o disminuir su cuantía, si estas circunstancias se hubieran modificado.

Las solicitudes de subvención se presentarán por cualquiera de estos medios:

-De forma telemática a través de la sede electrónica municipal:

<https://sedeelectronica.ansoain.es>

- De forma presencial, en las oficinas del Ayuntamiento de Ansoáin (Plaza Consistorial 1, de Ansoáin) en horario de lunes a viernes de 8:30 a 14:00 horas

debiendo presentarse como mínimo la siguiente documentación:

5. Documentación:

- Instancia dirigida al Alcalde, según modelo normalizado que acompaña a la convocatoria.
- Documentación acreditativa de los ingresos

<p>deialdiari erantsitako eskaera-ereduaren arabera.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Familiaren diru-sarrera gordinak egiaztatzen dituzten agiriak. - Matrikula ordaindu dela erakusten duen bankuko transferentzia. - Eskatzailearen kontu zenbakia. - Familia unitateko inork ez izatea inolako zorrik (tasak, isunak...) Udalarekin. - Minusbaliotasunaren egiaztatzea, halakorik bada. - Familia Liburuaren fotokopia. - Eskatzailearen NANaren fotokopia. - Bertaratze-ziurtagiria. Hartan hau zehaztu behar da: bertaratzearen portzentajea, egindako maila/urratsa, gainditutako maila. Bertaratzea %85ekoa izanen da, gutxienez. Aztertu egingen dira justifikatutako hutsegiteak. <p>6. Ikastaro estentsiboak eta trinkoak eta barnetegietako ikastaroak (gutxienez ere bi astekoak) egiteko emanen dira laguntzak; laguntzetatik kanpo daude nork bere kasa ikasteko ikastaroak.</p> <p>Euskara ikastaroetarako dirulaguntzek lehentasuna izanen dute Udako Euskal Unibertsitateko ikastaroen aldean.</p> <p>Eskatzaile bakoitzari gehienez ere 800 euroko dirulaguntza ematen ahalko zaio, urteko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte. Zenbateko hori urtero eguneratuko da, kontsumoko prezioen indizearen arabera.</p> <p>EGA prestatzeko ikastaroak ez dira diruz lagunduko.</p> <p>7. Ikastaro osoa egin bitartean erroldatuta egon beharko du.</p> <p>Laguntzak beti izanen dira urte horretan bertan egin diren matrikuletarako.</p> <p>8. Ez du dirulaguntza jasotzeko eskubiderik izanen lehendik maila edo urrats bera egiteagatik beste erakunde baten dirulaguntza jaso duen pertsonak.</p> <p>9. Euskalduntze prozesuan, maila edo urrats bat bi aldiz gainditu ez duen pertsonak ez du izanen</p>	<p>familiares brutos.</p> <ul style="list-style-type: none"> -Transferencia bancaria del pago de matrícula. -Número de cuenta del solicitante. -No tener pendiente deuda alguna (tasas, multas etc.) con las arcas municipales, ningún miembro de la unidad familiar. -Certificado de Minusvalía, si la hubiera. -Fotocopia del Libro de Familia. -Fotocopia del D.N.I. del solicitante. -Certificado de asistencia a clase, donde se especifique el % de asistencia, nivel/urrats realizado, nivel obtenido. La asistencia mínima será del 85%. Se estudiarán las faltas justificadas. <p>6. Las ayudas se concederán para la realización de cursos extensivos, intensivos e internados (mínimo de dos semanas de clase), siempre que no sean de autoaprendizaje.</p> <p>Las subvenciones de los cursos de euskera, tendrán prioridad a los cursos de la Universidad Vasca de verano.</p> <p>Por cada persona que solicite, la cantidad máxima de subvención, de 1 de enero a 31 de diciembre del año en curso será de 800 euros. Esta cantidad, cada año será actualizada con el índice de precios al consumo.</p> <p>No se subvencionarán los cursos EGA.</p> <p>7. Deberá estar empadronado durante la realización de todo el curso.</p> <p>Las ayudas corresponderán siempre a las matrículas efectuadas en el año en curso.</p> <p>8. No tendrá derecho a subvención, aquella persona que haya obtenido anteriormente una subvención por el mismo nivel (urrats) realizado de otra institución.</p> <p>9. Aquella persona que en su proceso de euskaldunización no haya superado por segunda vez un mismo nivel (urrats), no tendrá derecho a subvención.</p> <p>10. Podrán solicitar subvención: Mayores de 16 años.</p>
--	--

<p>dirulaguntza jasotzeko eskubiderik.</p> <p>10. Hona nor diren dirulaguntzak eskatzen ahal dituztenak: 16 urtetik goitikoak.</p> <p>EPEAK</p> <p>11. Laguntza eskabidea aurkezteko epe hau dago:</p> <p>Ekainaren 1etik uztailaren 19ra, deialdi honen aitzin urteko uztailaren 1etik eta aurtengo ekainaren 30a bitarte egindako ikasturte trinko, barnetegi eta/edo estentsiboetarako. Epe hori ezin izanen da luzatu eta ez da eskaerarik onartuko epe horretatik kanpo.</p> <p>EBAZPENEA</p> <p>Eskabideak aztertu eta baloratu ondoan, Tokiko Goebnu Batzordeak dirulaguntza ematea edo ukatzea eta dirulaguntzari dagozkion zehaztasunak erabakiko ditu, Euskara Zerbitzuaren txostena jaso ondoren.</p> <p>AURREKONTU ESLEIPENA</p> <p>Deialdi honen xede diren laguntzak Antsoaingo Udalaren 2023ko ekitaldiko gastu aurrekontuko 1-33500-4820002 gastu sailaren kargura finantzatuko dira. Partida horren zuzkidura 2.000,00 eurokoa da.</p> <p>ARAUDIA</p> <p>Deialdi hau dokumentu honetan jasotako oinarriek arautuko dute, eta, bertan aurreikusi ez denerako, araudi honetan ezarritakoak:</p> <p>Antsoaingo Udaleko Euskararen Erabilera eta Sustapena Arautzeko Ordenantza. Antsoaingo Udalaren 2023ko aurrekontua gauzatzeko oinarriak. Antsoaingo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza orokorra. 11/2005 Foru Legea, Dirulaguntzei buruzkoa. 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzkoa, eta 887/2006 Errege Dekretua (Erregelamendua). Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea. 2/1995 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.</p>	<p>PLAZOS</p> <p>11. Se establece un único plazo para la presentación de solicitudes de ayudas:</p> <p>Del 1 de junio al 19 de julio, para cursos intensivos, internados y/o extensivos realizados entre el 1 de julio de 2022 y 30 junio de 2023. El plazo será improrrogable y no se admitirán solicitudes fuera de ese plazo.</p> <p>RESOLUCIÓN</p> <p>Una vez analizadas y valoradas las solicitudes, la Junta de Gobierno Local, previo informe del Servicio de Euskera, acordará conceder o denegar la subvención, así como los términos de la misma.</p> <p>CONSIGNACIÓN PRESUPUESTARIA</p> <p>Las ayudas objeto de esta convocatoria se financiarán con cargo a la partida de gastos 1-33500-4820002 del presupuesto de gastos del Ayuntamiento de Ansoáin para el ejercicio 2023, cuya dotación disponible es de 2.000,00 euros.</p> <p>NORMATIVA REGULADORA</p> <p>La presente convocatoria se regirá por las bases recogidas en este documento, y en lo no previsto en él, por lo establecido en la siguiente normativa:</p> <p>Ordenanza Reguladora del uso y fomento del Euskera del Ayuntamiento de Ansoáin. Bases de ejecución del Presupuesto del Ayuntamiento de Ansoáin 2023. Ordenanza general reguladora de subvenciones del Ayuntamiento de Ansoáin. Ley Foral 11/2005 de Subvenciones. Ley 38/2003 General de Subvenciones y RD 887/2006 (Reglamento). Ley Foral 6/1990 de Administración Local de Navarra. Ley Foral 2/1995 de Haciendas Locales de Navarra.</p>
---	---